

Maria Luisa

Larrañaga Alkiza

Altza, 1938

Denda baten jabea. Maria Luisa Autozerbitzua. Langilea eta ekintzailea, beti etorkizunari begira.

Propietaria de una tienda. Maria Luisa Autoservicio. Trabajadora y emprendedora, siempre mirando al futuro.

Ikus sintesia bideoan
Ver síntesis en vídeo



Maria Luisa Donostiako Altza auzoan jaio zen, 1938ko abuztuaren 26an. Etxean, gurasoetz gain, lau ahizpa eta anai bat ziren, hura gazteena: **«Ni etxian la mimosa de casa, gaztiena nintzalako».**

14 urtera arte Altzako Eskola Publikoan ikasi zuen. Gero, 17 urte bete arte Antxora joaten zen egunero klase partikularrak jasotzera, Komertzioko titulazioa ateratzeko. **«Prepatzen zigun Antxokoak eta azterketa in behar genunean, Amarara jutun ginen».** Bi urte egin zituen, baina hirugarrena ez zuen bukatu: **«Gure ahizpa zaharrenak, harek zakan gogua nik iteko (bukatzeko), baino nik ez nun nahi».**

Maria Luisaren etxean denek eduki zuten ikasteko aukera: **«Zaharrenak atea zun el título de profesora, eta horregatik etxian ematen zitun klasiak [...] Gero bestia bordatzea ta bestia bordatzea baino desberdin».** Baina, hori bai: **«Dena prepatu emakumeak izateko, etxeko emakumeak».** Aitak ez zien uzten fabrikan lan egiten, hori lan gogorra zen, mutilentzat egina. Maria Luisak Komertzio ikasketak berak nahi zuelako ikasi zituela oroitzen du, bere aukera izan zela, nahiz eta gero bukatu nahi ez izan.

«Gero, Kontxitak, zaharrenak, tailerra jarri zun [...] Nesken tailerra Altzan». Horregatik, Maria Luisak ikasteari utzi zionean ahizpa zaharrenari laguntzen zion: **«Nik josi gutxi itenun, baino erropak eta gauza hoiek eamaten lagundu bai [...] Gero ya, ahizpa ezkondu zan eta ni ya nobioakin».** Orduan, bizimodua aldatu egin zitzaion: **«Hasi nitzanian nobioakin 18 urtekin, ba, nere bizimodua zan etxian».**

Joxebak eta Maria Luisak trenean ezagutu zuten elkar, Ordiziara bidean, parrokiako katekesira zihoan batean. Ezkontzean Astigarragara joan ziren bizitzera, Joxeba bertakoa zelako. Haren aitak etxeak egin zituen, eta seme-alaba bakoitzari bat oparitu zion: **«Transportistak zian, eta nere gizonak transportian lana iten zun».**

Seme-alabak izan zituzten: **«Ni bi txikikin ondo moldatzen nitzan eta jutun nitzan Herrerara, ahizpa han ezkondu zan eta hareta bixitan».** Baina orduan, senarra gidabaimena berritzera joan zen eta ikusmen arazo bat detektatu zioten. Ondorioz, kamioiarekin kanpoan ibiltzeko baimena kendu zioten, eta soilik tokiko bidaiak egitera mugatu behar izan zuen: **«Hori gutzako izan zan un traspié, local etzan ateatzen bestia bezela lana».**

Une horretan, bere ahizpa zaharrenarekin batera, aurrera ateratzeko zer egin zezaketen pentsatzen hasi ziren: **«Netzako bigarren ama izan zan».** Hasieran, Maria Luisa jertseak egiteko makina erabiltzen ikasten hasi zen etxean: **«Eta ez, makina batekin ni ez, enitzan jartzen».** Gero, Kontxitak mertzeria bat irekitzeko ideia eman zion, baina Maria Luisari ez zitzaion ideia ona iruditu: **«Mertzeria kapritxoa da [...] Jan egunero in behar da eta jantzi ez [...] Ne gizonai laguntzeko gehio behar genun».** Azkenean, denda irekitzeko ideia eduki zuen: **«Eta nik nola banakan komertzioko gauza, ba hoi ondo etorri zaigu».**

Ergobian Coviranen biltegi garrantzitsu bat zegoen, eta hara joan zen Maria Luisa galdetzera. Zuzendariak denda ireki zezakeela esan zion: **«Baino sozio in behar**

dezu». Sarrera ordaintzeko nahikoa dirurik ez zuenez, hasieran, bankura joan zen, baina han ezezkoa eman zioten, honako argudio honekin: **«Aurrez ez nuela beste dendarik».** Orduan, Coviraneko zuzendariak dirua berak utziko ziola esan zion, hiru epetan, eta 1968an ireki zuen denda: **«Martxoaren 8 batean, Emakume Langilearen Eguna, iriki nun».**

Maria Luisak Maria Luisa Autozerbitzua deituriko denda bere izenean ireki zuen. Asko lan egin zutela gogoratzen du, herritar ugari joaten ziren hara erosketak egitera. Gainera, ostiraletan, denda itxi ostean, familiako kideei telefonoz egindako enkarguak etxez etxe eramaten zizkieten: **«Sakrifikatu egiten zinen, baina aurrera gindoazen».** Iksitakoak negozioa eramateko balio izan ziola konturatu zen: **«Niri matematikak zerbaitetarako balio izan zidan, garai hartan ere gauza asko eskatzen zizkiguten (legeari zegokionez)».**

Garai hartan, salgaiak ez ziren dendaz denda banatzen, norberak joan behar zuen errotera, gero dendan saltzeko. Senarrarekin edo Kontxitarekin joaten zen erosketa horiek egitera; Amarara fruta bila, Ergobiara haragiaren bila... Maria Luisak ez zuen gidabaimenik atera: **«Nik nahi nun, beti esaten nion, "Joxeba zeatikan nik ez det ikasten gidatzen?" Ta esaten zian, "zeatik? zu beti nerekin zaude ta"».**

Maria Luisak bizitza bere senarraren ondoan oroitzen du. Denda ireki zuten urtearen bukaeran, irabazitakoaren balantzea egin zuen. Zorrik gabe bukatzeaz gain, nahikoa diru irabazi zutela konturatu zen eta orduan, Maria Luisak esan zion bere senarrari: **«"Joxeba ze iruitzezaizu, zu hemen gelditzen bazea? Eta kamioia utzi ingodeu"».** Ondo iruditu zitzaion hari, eta ordutik, elkarrekin egon ziren dendan lanean erretiroa hartu arte.

Kontziliazioari dagokionez, goizetan hark eramaten zituen haurrak eskolara, eta bazkal ordurako berriz, egunaren arabera: **«Beti aita edo biok konpontzen giñan».** Bikoteak dendan txandaka egiten zuen lan eta Maria Luisak ahal zuenean egiten zituen etxeo lanak, horiek bere ardua ziren eta.

Bere aisialdia familiarekin gozatzen zuen, haren gurasoekin afaltzen zuten larunbatetan eta senarrarekin zein familiarekin bidaiak egin zituen. Senarraren ama gaixo jarri zenean, haiekin joan zen bizitzera. Hortaz, bikotea asteburu-pasa joaten bazen: **«Txikiak ya koxkortuak zeuden, dendan eoteko bazian gai, eta amonakin ondo konpontzen zian».**

Senarra, erretiroa hartzeaz zegoela, gaixo jarri zen: **«Nere koñatuak, eta ahizpa zaharrenak (eta nik), gure esku zegoen guztia egin genuen; beti paseatzea, jaietan...».** Orduan konturatu zen gida baimenaren garrantziaz: **«Esan nion, nik gidatzen jakin banu... eta esan zian, "bai arrazoi dezu, baina, otros tiempos", gutxinez onartu zun».**

«Ni bea baino gaztito nola nitzan asmua genun [...] biok elkarrekin erretiratzeko». Seme-alabak helduak ziren dagoeneko, Joxebak (semeak) lana bilatu zuen eta Beatrizek

(alabak) lana edukitzeaz gain, umeak eduki zituen: **«Beti apuratuta etortze zan (laguntza eske)»**. Gainera, dendako salmenten egoera aldatzen joan zen: **«Jendeak ez zuen lehen bezainbeste erosten dendan, eta pentsatu nuen: "haiek ni utzi aurretik, nik utziko ditut beraiek", ez nakan premia»**. Egoera horrela, senarra hil eta hilabete gutxira, 62 urte eta erdirekin eta dendan 31 urte igaro ostean, itxi eta erretiroa hartu zuen: **«Ez dakizu ze ederki pasa nun hauek biyekin (bilobekin), jota neon eta hauek me iluminaron»**.

«Ni alargun geldituta egunero egunero juten nitzan Donostia ne ahizpangana». Dena den, denborak aurrera egin ahala Astigarragan bizitza gehiago egin du Maria Luisak: **«Orain ezin naiz autobusez ibili, ez didate uzten»**. Asteazken goizetan, mezaren ondoren, emakumez osatutako lagun talde batekin biltzen da kafea hartzera beraien kontuez hitz egiteko: **«Orain egin dut nik kuadrilla Astigarragan»**.

Maria Luisa oso amona atsegina eta zoriontsua da: **«(Biloben inguruan) Bere amak eta iten zuten, baino zerbait behar bazuten laguntzeko, gero eskola juten zianian bila juteko eta autobusea, eta gauza hoiek, dedicada a eso»**. Horrela definitzen du bere burua: **«Langilea eta etorkizunari begira beti. Zerbaitegatik jarri nuen denda martxoaren 8an, Emakume Langilearen Egunean»**.

Maria Luisa nació en el barrio de Altza, en Donostia, el 26 de agosto de 1938. En casa, además de sus padres, eran cuatro hermanas y un hermano, ella la más joven: «Yo era la mimosa de casa, por ser la pequeña».

Estudió en la Escuela Pública de Altza hasta los 14 años. Después, hasta los 17, iba cada día a Pasai Antxo para recibir clases particulares y obtener el título de Comercio. «Nos preparaban en Antxo y, cuando teníamos que hacer el examen, íbamos a Amara». Estuvo dos años, pero no terminó el tercero: **«Nuestra hermana mayor quería que lo hiciera (terminar), pero yo no quería»**.

En casa de Maria Luisa, todos tuvieron la oportunidad de estudiar: **«La mayor obtuvo el título de profesora y por eso daba clases en casa [...] Luego, otra bordaba y otra también pero cosas diferentes»**. Sin embargo, había algo cierto: **«Todo iba preparado para ser mujeres, amas de casa»**. Su padre no les permitía trabajar en la fábrica, porque era un trabajo duro, hecho para hombres. Maria Luisa recuerda que decidió estudiar Comercio porque era lo que quería, aunque luego no quisiera terminar.

«Después, Kontxita, la mayor, montó un taller [...] Un taller de chicas en Altza». Por eso, cuando Maria Luisa dejó los estudios, ayudaba a su hermana mayor: **«Yo cosía poco, pero ayudaba a llevar ropa y esas cosas [...] Luego, mi hermana se casó y yo ya estaba con mi novio»**. Entonces, su vida cambió: **«Cuando empecé con mi novio, a los 18 años, mi vida se resumía a la casa»**.

Joxeba y Maria Luisa se conocieron en el tren, camino a Ordizia, cuando ella iba a catequesis parroquial. Al casarse, se fueron a vivir a Astigarraga porque Joxeba era de allí. Su padre construyó unas casas y regaló una a cada hija e hijo: **«Eran transportistas, y mi marido trabajaba en el transporte».**

Tuvieron una hija y un hijo: **«Con los dos pequeños me apañaba bien y solía ir a Herrera, donde se casó mi hermana, a visitarla».** Pero entonces, su marido fue a renovar el carné de conducir y le detectaron un problema de visión. Como consecuencia, le retiraron el permiso para viajes largos y tuvo que limitarse a viajes locales: **«Eso fue para nosotros un traspie, porque lo local no daba tanto trabajo como lo otro».**

En ese momento, junto con su hermana mayor, comenzaron a pensar en cómo salir adelante: **«Para mí fue como una segunda madre».** Al principio, Maria Luisa comenzó a aprender a usar una máquina para hacer jerséis en casa: **«Y no, con una máquina no, no me arreglaba».** Después, Kontxita le sugirió la idea de abrir una mercería, pero a Maria Luisa no le pareció buena idea: **«La mercería es un capricho [...] Hay que comer todos los días, pero no comprar ropa nueva [...] Necesitábamos algo más para ayudar a mi marido».** Finalmente, tuvo la idea de abrir una tienda: **«Y como tenía lo de comercio, nos vino bien».**

En Ergobia había un almacén importante de Covirán, y Maria Luisa fue allí a preguntar. El director le dijo que podía abrir una tienda: **«Pero necesitas asociarte».** Como no tenía suficiente dinero para pagar la entrada, al principio fue al banco, pero allí le dijeron que no, con el siguiente argumento: **«No tenía experiencia previa con otra tienda».** Entonces, el director de Covirán le ofreció prestarle el dinero en tres plazos, y en 1968 abrió la tienda: **«La abrí un 8 de marzo, el Día de la Mujer Trabajadora».**

Maria Luisa abrió la tienda llamada Maria Luisa Autoservicio a su nombre. Recuerda que trabajaron mucho, y que mucha gente acudía allí a hacer sus compras. Además, los viernes, después de cerrar, llevaban a las personas de la familia los encargos hechos por teléfono a domicilio: **«Era sacrificado, pero salíamos adelante».** Se dio cuenta de que lo que había estudiado le sirvió para gestionar el negocio: **«Las matemáticas me sirvieron de algo, porque en esa época también nos pedían muchas cosas (en términos legales)».**

En aquellos tiempos, el género no se distribuía de tienda en tienda, sino que una misma debía ir a comprarlo para venderlo después. Maria Luisa solía ir con su marido o con Kontxita; a Amara por fruta, a Ergobia por carne... Nunca obtuvo el carné de conducir: **«Yo quería, siempre le decía: "Joxeba, ¿por qué no aprendo a conducir?". Y él decía: "¿Para qué? Tú siempre estás conmigo"».**

Maria Luisa recuerda su vida al lado de su marido. Al final del año en que abrieron la tienda, hizo el balance de lo ganado. No solo terminaron sin deudas, sino que también habían ganado bastante dinero. Entonces, Maria Luisa le dijo a su marido: **«"Joxeba,**

¿qué te parece si te quedas aquí y dejamos el camión?». A él le pareció bien, y desde entonces trabajaron conjuntamente en la tienda hasta su jubilación.

En cuanto a la conciliación, por las mañanas ella llevaba a la niña y al niño a la escuela y, a la hora de la comida, se organizaban según el día: **«Siempre nos apañábamos entre los dos»**. La pareja trabajaba por turnos en la tienda, y Maria Luisa hacía las tareas de casa cuando podía, ya que eran su responsabilidad.

Disfrutaba su tiempo libre con la familia, cenaban con sus padres los sábados y viajaba con su marido y su familia. Cuando la madre de su marido enfermó, ella fue a vivir con su suegra y su suegro. Así que, si la pareja se iba de escapada de fin de semana: **«Los niños ya eran mayores, podían quedarse a cargo de la tienda, y se llevaban bien con la abuela»**.

Cuando su marido estaba a punto de jubilarse, enfermó: **«Mi cuñado, mi hermana mayor y yo hicimos todo lo que estaba en nuestra mano; siempre paseábamos, en las fiestas...»**. Fue entonces cuando se dio cuenta de la importancia del carné de conducir: **«Le dije, si yo supiera conducir... y él me dijo: "Tienes razón, pero eran otros tiempos", al menos lo admitió»**.

«Yo, siendo más joven que él, nuestra idea era jubilarnos juntos». Su hija e hijo ya eran adultos, Joxeba (el hijo) encontró trabajo y Beatriz (la hija), además de trabajar, fue madre: **«Siempre venía apurada (pidiendo ayuda)»**. Además, las ventas de la tienda fueron cambiando: **«La gente no compraba tanto en la tienda como antes, y pensé: "antes de que me dejen ellos a mí, les dejaré yo a ellos", no tenía la necesidad»**. Con esta situación, poco después de que su marido falleciera, con 62 años y medio y tras 31 años en la tienda, la cerró y se jubiló: **«No sabes lo bien que lo pasé con mis dos nietas; estaba hundida y ellas me iluminaron»**.

«Quedándome viuda, todos los días iba a Donostia, a casa de mi hermana». Sin embargo, con el paso del tiempo, Maria Luisa ha hecho más vida en Astigarraga: **«Ahora no puedo andar en autobús, no me dejan»**. Los miércoles por la mañana, después de misa, se reúne con un grupo de amigas para tomar café y hablar de sus cosas: **«Ahora tengo una cuadrilla en Astigarraga»**.

Maria Luisa es una abuela amable y feliz: **«(Sobre sus nietas) Sus madres ya se arreglaban, pero si necesitaban algo, les ayudaba; cuando iban al colegio las recogía y las llevaba en autobús, y cosas así, dedicada a eso»**. Así se define a ella misma: **«Trabajadora y siempre mirando al futuro. Por algo abrí la tienda el 8 de marzo, el Día de la Mujer Trabajadora»**.